
 <b>kutxabank</b>	<b>ABALAK ETA BESTE BERME BATZUK</b>	EPIGRAFEA <b>4</b>
	Egun honetatik indarrean: 2022.04.19	1. orria 2(e)tik

KONTZEPTUAK	Komisioa					
	Formalizazioagatik (behin bakarrik)		Arriskuagatik (hiru hilez behin)		Informazio eta azterketagatik (behin bakarrik)	
	Abalaren zenbatekoaren gaineko %	Gutxienekoa eurotan	Abal adierazgarriaren zenbatekoaren gaineko %	Gutxienekoa eurotan	Abalaren zenbatekoaren gaineko %	Gutxienekoa eurotan
<b>1. Aurre- abalak</b>	0,50	60,00	--	--	--	--
<b>2. Abal teknikoak</b>	1,50	60,00	1,50	30,00	1,50	60,00
<b>3. Abal ekonomikoak</b>						
- Merkataritzakoak	1,50	60,00	1,50	30,00	1,50	60,00
- Finantzarioak	1,50	60,00	1,50	30,00	1,50	60,00
<b>4. Abal linea</b> Xedea: promozioak eta etxebizitzaren eraikuntza	1,50	60,00	1,50	30,00	2,50	60,00

- 1. oharra** Epigrafe honetan jasoko da Ogasun Publikoaren aurrean emandako berme oro eta bezeroak hirugarren baten aurrean onartutako betebeharrak edo konpromisoak behar bezala bermatzeko kausio, berme eta finantza oro.
- 2. oharra** Aurre-abaltzat jotzen dira proposatutako finantza-eragiketaren azterketarako alde aurreko urrats gisa Banku abal-emaleen konpromiso sendoa izan gabe erakunde eskatzailearen aurrean dagokion egunean behin betiko abala ematearen aldeko jarrera agertzen dutenak.
- 3. oharra** Izaera teknikoko abaltzat hartuko dira Banku abal-emaleentzat ordaintzeko zuzeneko obligaziorik ekartzen ez dutenak, baina erakunde publikoren baten aurrean (gehienetan, erakunde publikoa) abaldunak bere gain hartutako konpromisoak ez betetzearen aurrean erantzungo dutenak arrazoi hauek direla eta: salgaien inportazioa denbora-erregimenean, lehiaketa eta enkanteetako partaidetza, obrak edo hornidurak gauzatzea, saldutako makinaren funtzionamendu egokia eta abar.

 <b>kutxabank</b>	<b>ABALAK ETA BESTE BERME BATZUK</b>	EPIGRAFEA <b>4</b>
	Egun honetatik indarrean: 2022.04.19	2. orria 2(e)tik

- 4. oharra** Izaera ekonomikoko abalak: merkataritza- edo finantza-izaerakoak izan daitezke. Lehenengoek merkataritza-izaerako eragiketei egiten diete erreferentzia eta hauen aurrean erantzuten dute: edozein motako ondasunen salerosketan atzeratutako ordainketak, ordainketaren zatikapenak, aldez aurretik entregatutako kopuruak eta abar. Bigarrenengoek abalatutako bezeroak beste erakunde batzuetatik jasotako kreditu edo maileguei erantzuten diete eta horien aurrean Banku abal-emaileak zuzenean itzultzeko betebeharra du; oro har, finantza-letren abalak edo kreditu- edo mailegu-polizen abalak izan ohi dira.
- 5. oharra** Arriskuagatiko komisioa aurreratutako hiruhilekoen arabera jasoko da. Epemuga zehatzik gabeko prestazio-bermea duten abaletan, komisioaren sortzapena abala edo bermea idatziz jasota duen dokumentua itzultzearekin amaituko da eta, halakorik ezean, hori modu frogagarrian eta bankuaren onespenean osoa duen eran baliogabetuta. Eskuratzeko unean indarrean dagoen obligazio nagusiaren zenbatekoaren gainean eta hori ez betetzetik etor daitezkeen obligazio subsidiarioak eta osagarriak gehituta kalkulatu da.
- 6. oharra** Arriskuagatiko komisioaren tasek "adierazle" izaera dutenez, tarifaren gainean hitzartutakoa nagusituko da.
- 7. oharra** Abal-lerroen eskuragarritasunagatiko komisioa hiruhilekoan erabili gabeko batez besteko arriskuaren gainean sortuko da.
- 8. oharra** Abal-lerroak kontsumitzaile ez direnei zuzendutako produktuak dira. Hortaz, lerroak zabaltzeagatiko, lerroak berritzeagatiko edo abal-lerroen eskuragarritasunagatiko komisioak kontsumitzaile ez direnei soilik fakturatu ahal izango zaizkie.